BESTELAKO XEDAPENAK

HERRI ADMINISTRAZIO ETA JUSTIZIA SAILA

5366

EBAZPENA, 2013ko azaroaren 22koa, Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeko zuzendariarena, udalei ordezkapenetarako dirulaguntzak ematen dizkiena.

Dirulaguntza hauek euskara eskoletara joateagatik egindako ordezkapenak diruz laguntzeko ematen dira, Ogasun eta Herri Administrazio Sailburuaren 2005eko azaroaren 30eko Aginduaren 7. artikulua eta ondorengoak betez. Agindu horren bidez, batetik, Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeak Euskal Autonomia Erkidegoko herri-erakundeei eskainiko dien hizkuntza prestakuntzako zerbitzua arautzen da, eta bestetik, euskara ikastaroetara doazen udal langileak ordezkatzeko dirulaguntzen arauak ezartzen dira.

Ikusirik ordezkapenak zuritzeko udalek aurkeztu duten dokumentazioa eta berau Aginduan ezarritakoarekin konparatu ondoren, hau

EBAZTEN DUT:

Artikulu bakarra.– Eranskinean aipatzen diren udalei bakoitzarentzat izendatzen den diru kopurua ematea, egindako kontratazioen dirulaguntza gisa. Emandako dirulaguntza 2013ko uztaila-abendua epeari dagokio, gehienez ere. Hala ere, diru kopuru hori alda daiteke, besteak beste ordu-kreditu eta asistentziari buruzko datuak jaso eta kontuan hartu ondoren.

Ebazpen honen aurka ezin da errekurtsorik jarri administrazio-bidean, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 44. artikuluak arautzen duen moduan.

Vitoria-Gasteizko Administrazioarekiko Auzien Epaitegiari aurkez dakioke administrazioarekiko auzi-errekurtsoa. Errekurtsoa jartzeko epea bi hilabetekoa izango da jakinarazten den biharamunetik hasita, aipaturiko 29/1998 Legearen 46. artikuluak esan bezala.

Hala ere, aldez aurretik, Erakunde honi errekerimendua egin ahal izango zaio, egintza ezezta dezan. Errekerimendua IVAPeko zuzendariari zuzendu beharko zaio idazki arrazoitu baten bidez. Errekeritzeko epea bi hilabetekoa izango da Ebazpena jakinarazten den biharamunetik hasita. Errekerimendua jaso eta hurrengo hilabetean erantzunik ematen ez bazaio, ukatutzat joko da (29/1998 Legearen 44. artikulua). Aurretik errekerimendua izan bada, Administrazioarekiko Auzietako errekurtsoa jartzeko epea, berariazko akordioa jasotzen den edo isilbidez ezeztatuta jotzen den hurrengo egunetik aurrera zenbatuko da.

Vitoria-Gasteiz, 2013ko azaroaren 22a.

Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeko zuzendaria,
MARÍA TERESA IRURETAGOYENA IBARGUREN.

ERANSKINA

2013KO UZTAILA-ABENDUA

Erakundea	Modulua	Diruz lagundutako hilabeteak	Ikasle kopurua	Dirulaguntza	Guztira
Donostiako Udala	25 10	3 3	2 5	12.151,98 7.519,05	19.671,03
Vitoria-Gasteizko Udala	10 10	3 2	1 1	1.503,81 1.002,54	2.506,35
Iruña Okako Udala	10	2,57	1	1.288,26	1.288,26
GUZTIRA					23.465,64